


txinpart

hautzaro ikastolako aldizkaria

2005 Ekaina • 32. zenbakia



Gozatzeko ez dut asko behar




AURKIBIDEA

HAURTZARO INFORMATZEN	3
HATZAK BETE LAN	8
GURASOOK JAKIN DEZAGUN	16
GU ERE KAZETARI	19
NAHASTE BORRASTE.....	23



Gozatu
oporrak
eta
irailarte!!!



OHARRA: 05 / 06 ikasturtearen hasiera, zerbitzu guztiekin batera (jantoki, garraio...), irailaren **12an** izango da. Dena den Harrera eguna irailaren 8an egingo dugu.

Erein eta gero...



...bertsolari bikainak lor daitezke. Hara nola Donostiako Kurtsalen Gipuzkoako eskolarteko 25. Bertsolari Txapelketaren finala jokatu zen eta bertan Eneko Huizi, Lur Mitxelena, Haritz Azkarate, Karmele Mitxelena eta Alaia Martin bikain ibili ziren. Bertso paperetan Izaro Toledok eta Alaia Martinek saria lortu zuten.

...atleta saiatuak, Maitane Azpeitia bezala. Bere lanaren saria Espainiako txapela irabaztea izan da gazte mailan.

...idazle berriak. Ane Badiola, Garazi Ansa eta Olatz Mitxelenak, Urruzuno saria lortu eta Europan zehar bidaiatu dute.

...borrokalaria ausartak. Beñat Etxeberria eta Julen Idarreta Murtzian izan dira, Espainiako "Lucha libre" txapelketan. Beñat txapeldun suertatu zen.

Honako uzta ikusi ondoren, gu EREITEN JARRAITUKO DUGU.



3. Hiruhilabeteko irteerak

MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
PARTZUERGOA			
2 URTE	MAIATZAK 6	AÑARRE ETA ZULAPITXI BASERRIETARA	BASERRIKO GIROA GERTUTIK EZAGUTU
2 URTE	MAIATZAK 30	IRUNGO ESKULAN TAILERRERA	ARTEA BESTE PLANO BATEAN EZAGUTU ETA GOZATU
2 URTE	ASTEAN ZEHAR	IBARGAINEKO PARKERA	INGURU HURBILAREN EZAGUTZA
2 URTE	ASTEAN ZEHAR	MENDIBILKO TXARARA	INGURU HURBILAREN EZAGUTZA
2 URTE	ASTEAN ZEHAR	ALTZIBARKO PARKERA	INGURU HURBILAREN EZAGUTZA
2 URTE	ASTEAN ZEHAR	OIARTZUNGO PLAZARA	INGURU HURBILAREN EZAGUTZA
2 URTE	ASTEAN ZEHAR	BIDEGORRIRA	INGURU HURBILAREN EZAGUTZA
2 URTE	ASTEAN ZEHAR	OLANTXENENKO ASTOARENA	INGURU HURBILAREN EZAGUTZA
HH ZIKLOA			
HH 1	APIRILAK 19	ZOLOTIAR BASERRIRA ARISTIZABAL BASERRIA OIARTZUNEN	GAIA:ABEREAK
HH 1	MAIATZAK 20	ZULOAGA MUSEOA ZUMAIAN	GAIA:ARTE LANAK
HH 1	EKAINAK 9	OLABERRI ERREKA EREÑOZUN	INGURUNEAZ, URAZ GOZATZEA
HH 2	EKAINAK 10	KARRIKARA	URAREKIN GOZATZERA
HH 2	HIRUHILABETEAN	LIBURUTEGIRA	EREMU HORRETAN IRAKURKETA SAIOAK EGIN ETA BERTAN NOLA MOLDATU BEHAR DEN BIZITZERA



HH 1eko ikasleak



HH 1eko ikasleak



MAILA	NOIZ	NORA	HELBURUA
LH ZIKLOA			
LH 1	Apirilak 26	Ama Xantal museora eta Guadalupera	Erromatarren gaia sakontzea eta gozatzea
LH 1	Apirilak 28	Donostiara, Erdia aroko erakusketa ikustera	Erdi aroa lantzea
LH 1	Maiatzak 11	Pagoeta Naturgunera	Naturgunea ezagutu eta gozatzea
LH 1	Ekainak 8,9,10	Beizamara	Harremanak, autonomia...lantzea eta ondo pasatzea
LH 2	Apirilaren 22	Donostira	Santiago bidearen erakusketa ikustera
LH 2	Apirilaren 29	Azpeitira	Ingurugiro etxea eta tren museoa ikustera
LH 2	Maiatzaren 10	Oiartzun	Inguruko naturaren behaketa
LH 2	Ekainaren 8-9-10	Lesaka	Harremanak sendotzea
LH 3 - 4	Apirilak 25	San Markosera	Ohitura zaharrei eustea
LH 3	Apirilak 29	Gurutzeria	Ingurunea aztertzea
LH 3	Maiatzak 3	Miramon- Haize orrazea	Gaiaren lanketa zuzena
LH 3	Maiatzak 5	Pagoetara	Gaiaren lanketa zuzena
LH 3	Maiatzak 13	Penadegira	Uraren ibilbidea ezagutzera
LH 3	Maiatzak 25- 27	Mendibilko Txarara	Ekosistema aztertzea
LH 3 - 4	Ekainak 14	Urkabera	Ikasturteari amaiera ematera
LH 4	Maiatzak 12	Penadegira	Uraren ibilbidea ezagutzera
LH 4	Apirilak 28	Oñati-Arntzazu	Gaiaren lanketa zuzena
DBH			
DBH 3	Maiatzak 24	Ama Xantalen (Irun) Tximeleten erakusketa (Irun) Abadía gaztelua (Hendaia)	• Kultura Klasikoa: erromatarren aztarnak ikustea, aztertzea • Natur Zientzietako gai bat (tximeletak) gertutik ezagutzea • Antoine Abbadiaren bizitza ezagutzea, baloratzea, besteak beste, Euskara eta Euskal kultura bultzatzaile moduan.
DBH 3	Ekainak 8-9-10	La Arboleda (Bizkaia)	• Harremanak sendotzea eta elkarbizitzaz gozatzea. • Leku ezberdinak ezagutzea eta ekintza ezberdinak egiteko aukera izatea. • Eguneroko lanetik deskonektatuz eta arauak errespetatuz, denok taldean ongi pasatzea.



Obrak!



Bai, ikastolan eta udara osoan zehar obrak izango ditugu. Obra guztiak bezala hauek ere eragozpenak ekartzen dituzte, baina hasieran bakarrik. Ondoren eta bukatuak ikusten ditugunean, eragozpenak eta atzetik dituzten lan, bilera, akordio, haserrealdi, nekaldi, ... denak ahaztu eta emaitzak disfrutatzen ditugu.

Aurrera begiratzen dugu honelako lanetan sartzen garenean. Kontutan izaten ditugu beharrak, oraingoak eta gerokoak: mota guztietako haurrak izan nahi baditugu "barrerak" desager arazi behar ditugu, ingurumena zaindu nahi dugu. Luze aritu gaitezke arrazoiak ematen obrak gure inguruan onartzeko.

Udara honetan hauek ikusiko ditugu:

Jantokia: Handitu behar da. Haur asko eta asko gelditzen dira gure jantokian. Honen bukaera oraindik luze joko du baina irailerako gehiena eginga egongo da.

Igogailua: Lehen aipatutako barrerak kendu behar ditugulako.

Aldagelak: Gure ikasleak lasai eta gustura aldatu ahal izateko.

Eguzki plakak: Hauek jarriak ditugu baina udaran zehar martxan jarriko dira.

Komun berriak.



Haurtzaro ikastolako Bote luzeko taldea ongi baino hobeto aritu da ikasturte honetan. Bailarako topaketan sailkatu ondoren, Oñatin ospatu zen Gipuzkoako finalean parte hartu genuen. Bertan eta kintze batengatik, azpitxapeldunak geratu ginen (bigarrenak, alegia).

Lan bikaina egin genuen ez da ala?

6. mailakoak

Automatismoak eta Errobotika lantzeko material berrien aurkezpena egin zuten Josu Arotzena eta Maddalen Usabiagak gure ikastolako lankideak, 2005eko apirilaren 19an. Ekitaldi hau Eibarko Markesena jauregian egin zen eta Euskal Herriko ikastolen Elkarteak antolatuta zegoen. Bikain aritu omen ziren. Zorionak!





Aurresku txapelketako kanporaketak

Aurten lehen aldiz ikastolako dantzari txikiak parte hartu dute kanporaketa hauetan. Kanporaketak azaroan hasi ziren Azkoitia, abenduan Legazpin, urtarrilean Oiartzunen eta Beasainen, otsailean Elgoibarren eta apirilean Ordizian. Herri guzti hauetan izan dira alpargata eta aurresku dantzatzuz, Haurtzaroko dantzariak. Maila ona erakutsi zuten denak eta batez ere Eneko Iparagirre, Ibai Kortabitarte, Ekhi Mitxelena, Aritz Olarte, Iñigo Ruiz de Azua eta Mikel Urdanpilletak. Handien mailan ere han izan ziren Eñaut Fernandez eta Jon Iragorri

Finala maiatzean izan zen Oreretan. Bertan izan ziren baita ere ikastolako ikasle diren Iñigo Etxebeste eta Lander Sein.

Iñigo Etxebeste bigarren geratu zen eta Aritz Olarte laugarren.

Neskak soinu zahar txapelketan ere bere maila erakutsi dute. Amaia Ostolaiz, Izar Aizpuru eta Aia de la Peñak parte hartu zuten, ondo baino hobeto dantzatzuz. Ikusi besterik ez dago lortutako emaitzak. Hauen finala maiatzean Legazpin izan zen.

Amaia Ostolaiz bigarren geratu zen.



Haurtzaro ikastolako ikasleak antzezle bikainak


Erretereria Hiria Kulturgunean Haurtzaro ikastolako ikasleek beren antzerki obra aurkeztu zuten. *Andoni Korta* Antzerki Topaketan barruan izan zen, eta erakustaldi bikaina izan zen Haurtzaroko artista gazteek eskainitakoa. Aurtengoa, topaketa horien IX. edizioa izan da. **A zer familia!** antzezlanarekin parte hartu dute eta hau obra honen laugarren emaldia izan zen.

DBH I.mailako ikasleak aritu dira. Ikasle hauek asteen bi ordu eskaintzen zizkioten antzerkia lanketari eta hamaika lagunek osatutako taillerrean.

Antzezleek diote oso esperientzia ona izan dela eta antzerkia oso gustuko dutela, hasieran lotsa pixka bat izan zutela, baina urte sasoi honetan ikastolako ikasgairik atseginetakoa omen dute. Jende aurrean hizketan ohitzeko oso lantegi aproposa izan dela eta batzuei antzezle profesional izateko asmoa eta gogoia ere piztu zaie. Oso polita omen da pertsonaia ezberdinetan sartu eta bakoitza interpretatzea. Nork bere buruarekin konfiantza hartzeko ere balio omen du ikastalor honek. Oso gratifikantea izan omen da, beraiek dibertituz, publikoa ere dibertitzen ikustea.

Zorionak ikastolako hamaika artista gazte hauei: Itsaso Markos, Oier Errandonea, Irati Arka, Ibai Intxausti, Julen Iturain, Imanol Areizaga, Jon Iragorri, Oihane Uitz, Odei Mujika, Mikel Garmendia eta Aiora Etxebeste.







ESKERRIK ASKO GARMENDIA
OKINDEGIKO GUZTIEI

OGIA EGITEN IKASI DUGULA
NABARMENA DA, EZ TA ?

A ZER NOLAKO ASKARIA
EGIN GENUEN!

HH 2ko ikasleak



MUSIKA TXOKOA

MAIATZAREN 20AN, OGTIRALA
MUSIKA TXOKOAIKUSTERA
JOAN GINEN JOAN MARI BELTRANEK
TRESNAK MUSIKATRESNA BATZUK ERABILI
GENITUEN ETA JO ERE BAI. ASKO
GUSTATU ZITZAIGUN ETA ASKO IKASI
GENUEN. ZUEK ERE ANIMATU ETA JOAN
ZAITHEZTE.

HH 3ko ikasleak

ERLEARRI BURUSKOTAZAK

BEARRI EORRIZEN-ELARRIARRI

BURUSKONTAZERA

ERLEAK LOREATATIK POLENA ARREBUTE

ETA ANKETAN ERAHATEN DUTE



ERLETEGIRA
EZTIA EBITEN DUTE ETA YIRIKATUZ
GERO ZITZATU EBITEN DUTE
PEREMPU (HIRU ERLE HOTA DAUDE)


ERREGINA LANGILEA ALPERRA

ERREGINA LAURTEBIZITZENDAE LANGILEA
UDARAN 5 EGUN

GAUZAK AZKOTAK 210 GULETAEZ IAROB AUVERE BAI

5 URTEKONAK





LARRAULEKO IBILALDIA

MAIATZAK 12 ETA 13AN LARRAULERA JOAN GINEN.

ARRATSALDEAN ASTEASUKO ERROTA IKUSTERA JOAN GINEN.

GAUEAN DESKILEA EGIN GENUEN ETA GERO HORTZAK GARBITU GENITUEN LO EGITERA JOATEKO.

LO EGIN ETA GERO ASPALDIKO TRESNEN MUSEOA ETA ELIZA IKUSTERA JOAN GINEN.

ONDOREN BI PIXUTAKO AUTOBUSA HARTU ETA ETXERA JOAN GINEN.

HH 3ko ikasleak



OIARTEU NDIK

IBILALDIA

Kaiso lagunek 2. mailako neska mutilak gara.
 Natura gara gurenez ibilaldia egin genuen.
 Ikastolatik atera eta basera joan ginen.
 Basen landareak, zuhaitzak, zuhaizak, txorien
 bantza. Eta guztietako zuhaitzak eta zuhaizak
 ikusi genituen. Gero basoria ikustera joan
 ginen, basorian barea nola egiten zuten ikusi
 genuen. Gero Maddi eta Liden baserrira joan
 ginen auzua hurreak ikustera eta gero
 Olasien baserrira joan ginen. Basorian
 behiak, txakurrak, zezurak animala pila.
 Gero Urteberara joan ginen hasbaltzera.
 andureroarekin. Oro ondo pasatu ginen.
 Gero Joserren baserrira joan ginen eta
 gero ikastolara.



Pagoeta natur gunean gaude.
Ikusi zein edertasuna!



Erleei bisita egiteko prest gaude!..
Nolako harrera egingo digute?...



Erleak agurtu ondoren,

Eztia eta polena dastatzeko
aukera

Izan genuen. Jasotako
argizariarekin

Kandela bana egin genuen.

BAI EGUN ZORAGARRIA!!!

I. mailako ikasleak



Arratsaldean, oreinak eta betizuak ikustera joan ginen.



Epa lagunok!

Gu LH 3. mailako ikasleak gara eta beste irteera baten berri ematera gatoz.

Joan den maiatzaren bostean, osteguna, Pagoetara joan ginen. Ez zuen eguraldi ona egin baina txarra ere ez. Bueno, euri pixka bat egin zuen.

Iritsi bezain pronto aterpe nagusira joan eta motxilak utzi genituen.

Pixka bat geroago hamaiketako jan eta bukatutakoan Amaia izeneko hango langile batek esan zigun bertako xardinetan mundu guztiko landareak zituztela. Jarraian bide batetik joan ginen landare horiek ikustera. Berehalaxe ikusi genuen landare bat eskua pasa eta kamamila usaia uzten zuena zure eskuan. Eta beste ehunka lore kolore eta tamaina guztietakoak.

Ibilbidea bukatutakoan aterpe nagusira berriro eta han ezta probatu genuen. Oso goxoa zegoen. Eta jarraian, ipuin bat osatu genuen erleen funtzionamendua laburtzen zuena. Eta bukatzeko kandelak egin genituen.

Kandelak egin eta gero bazkaltzera joan ginen, baina euria ari zuenez aterpean gelditu ginen eta dantza saio bat egiteko aukera ere izan genuen.

Arratsaldeko hirurak aldera han zegoen parkera joan ginen. Eta euria hasi zuenean beste aterpe txiki batean babestu eta pixka bat atertu zuenean autobusera korrika eta ikastolara berriro.



LH.3. mailako Miramon irteera

Maiatzak 3an mailakoek autobusa hartuta Miramoneko zientzia museora joan ginen. Museora sartu aurretik sarreran dauden Gipuzkoako jauregi, baserri eta eraikuntza berezien maketak ikusi genituen. Hamarretan museora sartu eta gidari batekin, esperimentuak eta zientzia tresnak ikusi genituen. Ondoren beste gidari batekin txikiklikeko gelara joan eta neurketen eta komunikazioaren inguruko joko batzuk egin genituen.

Handik ateratzerakoan, bazkaltzera, ondoko parkera joan ginen. Ondoko zelai batean jolasak antolatzen oso ondo pasa genuen.

Arratsaldean autobusa hartu eta Antiguoko auzoan dagoen Haizearen orrazea ikustera joan ginen. Gauza asko ikusi eta ikasi genituen. Denok elkarrekin oso gustura ibili ginen.



L.H. 3 mailako ikasleak

San Markosera joan ginenekoa

Apirilaren 25ean, San Markos eguna, 3. eta 4. mailako ikasle guztiak Ikastolatik atera eta oinez joan ginen bertaraino. Oso nekatuak iritsi ginen. Baina, esaera zaharrak dioen bezala: "Gogoko bidean, aldaparik ez!". Ederki pasa genuen eta merezi izan zuen gailur hartatik begiratzeak.

Iritsi ginenean gotorlekua ikusi genuen. Han goitik ikuspegi ederra zegoen: Donostialdea, Iparraldea... Gure Ikastola ere ikusten zen.

Bazkal aurretik tailer ezberdinetan parte hartu genuen. Gero bazkaldu eta beste ikastetxe batzutakoekin herri-kirolak egin genituen. Beste batzuk trikitixakin dantzatzuz ederki astindu zituzten oinak. Bukaeran, agurtzeko, denok elkarrekin kalejira bat egin genuen.

Ondoren Zamalbidera jaitsi ginen eta han autobusa hartu genuen Ikastolara itzultzeko. Horrelaxe ospatu genuen San Markoseko erromeria: opila jan gabe baina oso gustora.

2. ZIKLOKOAK





Haurtzaroko aktore digitalak

Inoiz aurkeztu bezala, DBH-4. mailako ikasleek lantzen dituzten arloen artean, hautazko tailerrak bezala izendatutako asignatura batzuk aukera ditzakete. Horietariko bat, **bideogintza digitala** izenekoak, aukeratu duten aurtengo ikasleen artean bi metraje laburreko film digital sortu dituzte.

Bai, hala da! Bi korto sortu dituzte!

“**Zergatik ote?**” eta “**Bahiketa**” titulua duten film labur horiek sortzeko zinema munduko pelikula bat egiteko fase guztiak jarraitu dituzte; hala nola, ideia nagusiak bilduko dituen gidoia idatziz, irudien grabaketetarako eszenatokien hautaketa bilatuz, aktore eta zuzendariaren rola betetzen dituzten pertsonaiak eginez, bideo-kamera digitalaren bidezko grabaketak, ordenadorearen bidezko editaia (titulu-kredituak, musika, mozketak...) eta azkeneko produkziara iritsi arte.

Bost hilabete luze pasa ondoren bi pelikula hauetan ikusgai duguna lortzeko izerdi patsetan aritu badira ere, Oiartzungo hainbat txokotan ezberdinetan primeran pasa dutela esan beharra dago; lana eginez disfrutatut baitute.

“**Zergatik ote?**” delako film laburrean homosexualitatearen gaia jorratu da; zeinetan, Oiartzungo gazte koadrila bateko bi bikote homosexualen gorabeherak kontatzen zaizkigun. Herriko jendeak komentario ez egokiak egin arren, beraien harremanekin aurrera jarraitu zuten. Hamar urte igaro ondoren, horietako bikote batek ezkontzeko erabakia hartuko du. Orduan, beste errealitate batekin topo egiten dute.... Egileak honako ikasleak dira: *Maialen Atxaga, Ander Bilbao, Nahikari Errazkin, Igone Eskudero, Aiora Mendiburu, Xabier Mitxelena, eta Oiane Orkaizagirre*



Besteak, aldiz, “**Bahiketa**” izenekoak, klasean dagoen ikasle bat loak hartzerakoan izandako ametsean du abiapuntua. Jakin-minez eta ekin-tzaz beteriko bigarren honetan suspentsea nagusitzen da. Bigarren honetako arduradunak; *Iñigo Aiestaran, Erik Alvarado, Erlaitz Aristizabal, Asier Arruabarrena, Beñat Lekuona, eta Xabier Pumar* izan dira.

Metraje laburreko film hauen amaierak eta mezu nagusienak aurreratu ordez, hauen proiektzio-emanaldiak eskainitakoan bertaratu eta ikustera gonbidatzen zaitugu irakurle.

Ikastolan ikasleek sortzen dituzten lehenengo film laburrak ez izan arren, prozesu osoa digitalki burutu duten lehenengoa aldia bada. Honela, dudarik gabe, filmen azken formatoa DVD moduan egin da.

ZORIONAK aktore digital gazte horiei guztiei! Benetan lan bikainak egin baitituzue!

Oharra: Aurtengo ikastola egunean lan hauen estreinu mundiala antolatzekotan gaude.



Bizitzaren kodea eta Ingeniaritza genetikoa

ingeniaritza genetikoa, geneen azterketa eta manipulazioan datza. Ingeniaritza genetikoa erabiliaz, geneak izaki bizidun batetik beste izaki bizidun batetara eraman daitezke. Honela, beste izaki bizidunaren geneak jaso dituen izaki bizidunak, gene-emailea den izaki bizidunaren lanak beteko dituelarik. Adibidez, *Scherichia coli* izeneko baktería asko erabiltzen den biziduna da medikuntzan, izaki bizidun honek, medikuntzarako erabilgarriak diren substantziak sintetizatzen baititu.

Bestetik, bioteknologia dago. Arlo honetan, oso garrantzitsua den GIZA GENOMA aztertzen ari dira. Horretarako, programa informatiko eta manipulazio genetikoko oso teknika sofistikatuak erabiltzen dituzte. Honen bidez, gizakiaren mapa genetikoa ezagutzen ari dira gainera. Bioteknologia hainbat gauza baliagarri egiteko erabiltzen da. Hona zenbait adibide:

- Gizakiarentzat komenigarriak diren substantziak sortzen ari dira; bakterio edo legamietan, animalia eta landareen -zelulak kultibatuz.
- Landare transgenikoak sortzen ari dira (elikagaiak)
- Mikroorganismo ezberdinak osatzen dira kutsadura organikoa desegiteko.
- Bakterio ezberdinak prestatzen dituzte (gaiak) ozeanoetan isuritako petrolioaren garbiketa egiteko.
- Industriadarok lehengaiak ekoizteko bizidunak lortzen dira.
- Zaborren tratamendua, metalen birfinketa, estrabismoaren zuzenketa ...ere erabiltzen da.

Hau guztia dela eta, bioteknologia erabiliaz edo aplikatuaz hainbat aurrerapen ere egin dira. Esaterako:

GIZAKION GENEAK DITUZTEN AKURIAK: minbizia eragiten omen duten geneekin probatu (onko-geneekin). Honela, horrek duen bilakaera aztertzen dute, aktibatzen edo pizten den... ondoren farmako berriak ere probatu ahal izateko.

DOLLY ARDIA: Hau, klonazioaren teknika erabiliaz sortu zen lehen ardia zen. Klonazioa, iazki bizidun baten informazioa genetikoa duen beste izaki bizidun

bat sortzean datza. Klonazio erreproduktiboa eta teraupetikoak berezi beharra dago.

ILE BAKAR BATENGATIK HARRAPATUTAKO GAIKILEA: Gaur egun poliziek, gaizkileak beren, ile, azal-zati, odol, semen, izerdi edota listu tantaren batekin harrapa ditzakete. Izan ere, hauetan, aztarna genetikoa (ADN molekula) lortzeko adina aukera dago eta 100 % zihurtasunarekin asma daiteke.

Baina, ingeniaritza teknikak eta bioteknologiak hainbat alde negatibo ere badituzte. Izan ere, azterketa eta esperimendu guztiak, ere ez zaizkie ongi aterako, eta mutazio ez egokiak ere sortuko ziren, baina horiek non daude? Zergatik ez dituzte azaleratzen? Zientzilariek, beti, gertakari arrakastatsuak soilik azaleratzen dituzte, besteak ezkutatuta.

Bestetik, zientzilariek politikarien menpe daude nolabait, izan ere, hauek ematen baitizkiete, beraien zientzia-lanak egiteko beharrezko diru-laguntzak. Honenbestez, zientzilariek politikariak nahi dituzten azterketa eta esperimenduak egiten dituzte, eta ez gizarteak beharrezkoak dituenak. Noski, hau tapatu nahian, nire ustez, azterketa batzuk egiten dituzte medikuntza alorrean adibidez, minbiziarekin, baina gehiago egin zitzaketen, gizartean osoki pentsatuta. Gainera, herri pobrei laguntzeko ere, erabil daitezke ingeniaritza teknika eta bioteknologia, baina, horretarako ere, ez dute dirurik xahutzen "porsiakaso". Beti, ahal bada, beraientzat.

Bestalde, esperimendu eta azterketa hauek egiteko animalia bizidunak erabiltzen dituzte, eta lehen aipatu bezala, mutazioak ez ezik, hilketak ere egiten dira, eta ez animaliekin bakarrik, ama-zelulekin ere lan egiten dute, eta horiek ere jada izaki bizidunak kontsideraturik daude. Baina, hauekin, lan egitea zenbait herrialdetan debekaturik daukate, beraz, zientzilariek leku jakinetan edukitzen dituzte, beraien laborategi-zentroak eta beste batzuetan borrokatzen ari dira horretarako.

Beraz ikusi dugunez, bioteknologiak eta ingeniaritza teknikoak beraien alde on eta txarrak ditzute, beste gauza guztien moduan. Orain geure lana da, bietatik zen den garrantzitsuena baloratzea, eta hautatzea geroari begira.

GARAZI ANSA (DBH-4.mailako ikaslea)



Zeuk ere lagundu HITZAri

OARSOALDEKO HITZA proiektuak bigarren urtea beteko du ekainean, eta gero eta txertatuagoa dago eskualdean. Izan ere, egunkaria, webgunea eta aldizkaria (ON) sortuak ditu, horiek milaka irakurle dituzte, eta Oarsoaldeko hainbat eragile HITZAren erakundeko kide dira. Hain zuzen, HAURTZARO IKASTOLA proiektuko sortzaileetakoa eta bazkidea da.

Denon artean ari gara, beraz, Oarsoaldean euskarazko komunikabideen sarea antolatzen eta garatzen.

Proiektuak aurrera egiteko, erakunde publikoen laguntza ez ezik, irakurleona ere behar du. Herritarrok diruz lagundu behar dugu Oarsoaldeko proiektu hau.

HITZAk aurten ere egunkariaren harpidedunen artean diru bilketa kanpaina egingo du laster. Modu honetara, 2005ean 120.000 euro bildu behar ditu; aurrekontuaren %25 inguru.

Idatzi honen bidez, HAURTZARO IKASTOLAKo partaide zaren hori, aurten HITZA diruz laguntzera animatu nahi zaitugu.

Zergatik lagundu behar du norberak?

Guk ere OARSOALDEKO HITZAri zerbait eskeintzeko

HITZA euskaldunon proiektua delako, gu ere HITZAKoak garelako.

Euskararentzat oso garrantzitsua delako.

Beraz, HAURTZARO IKASTOLAREN izenean, animatu HITZAri diru ekarpena egitera. Beharrezkoa zara!. Adeitasunez,

oarsoaldeko hitza
Harpidedunei berariaz • Azaroa • 2005-03-01 • III. urtea • 469. zenbakia

Oraindik ez duzula Oarsoaldeko Hitza etxean jasotzen?

Deitu berehala eta jaso ezazu **DOAN**
943 30 43 46
astegunetan 8:30etik 20:30era
lerunbaitetan 9:00etatik 13:00etara.

HITZA goizero etxean jaso, eta, zure herrian eta eskualdean gertatzen direnak bertatik bertara ikus eta irakur itzazu

ETA GAIEREA...
Bidaiazteko gogorik? Asteburu lasai bat pasatzeko gogorik? Sabela bete nahi? Laster zure nahiak HITZA-k beteko ditu. API EGOI!

HAURTZARO IKASTOLAKO KONTSEILU ERRETOREA



LA COMUNIDAD EDUCATIVA: UN ESPACIO DE ENCUENTRO E IMPLICACIÓN ENTRE TODOS/AS

Conformar la comunidad educativa, significa hacer realidad práctica la interacción entre los/as diferentes agentes (alumnos, padres, trabajadores no docentes, profesores y el equipo directivo) sin olvidar el contacto directo con la realidad socioeducativa y comunitaria de nuestro pueblo. En consecuencia, es el respeto mutuo y la garantía de poder compartir y tener en cuenta a todos los participantes de la comunidad educativa.

A este respecto, el objetivo prioritario debe ser favorecer el desarrollo humano de alumnos y alumnas, sus necesidades formativas, a los/as que se les considera sus derechos y deberes, potencian sus capacidades, garantizando un clima y relación adecuada.

En esta actividad socioeducativa, todos formamos parte y con nuestra participación en el presente, estamos construyendo el futuro de una sociedad de hombres y mujeres plurales, libres y solidarias.

Es por ello que los espacios de relación y convivencia donde se desenvuelven nuestros hijos e hijas (centro escolar, hogar y pueblo) tienen una significativa importancia. En esos espacios en los que conviven, sienten y canalizan sus emociones, confluyen y se dan una sinergia de actuaciones que merece la pena analizar.

En el centro escolar el niño/a y/o adolescente construye una gran parte de su identidad, asienta sus valores, todo ello, en un proceso que combina la adquisición de contenidos educativos (inteligencia abstracta) y expresión de sus sentimientos a través de la relación-socialización con sus iguales (inteligencia emocional) Y aquí las actuaciones deben ser coordinadas, colectivas y con respuestas maduras de adultos a niños en proceso de adquisición y aprendizaje, llevado a la práctica con actitudes ejemplarizantes de acercamiento, acompañamiento, complicidad e implicación mutua.

De igual modo el hogar y entorno familiar no pueden ser ajenos a este proceso constructivo, y se hacen necesarias actitudes de implicación, acompañamiento, autoridad, reforzamiento de los conteni-

dos educativos y plena comunicación con el personal docente, donde debe primar un clima de confianza y un compromiso mutuo entre las partes intervinientes, para lo cual se deben "abrir puertas" sin prejuicios ni perjuicios para nadie.

Esos distintos mundos, donde se desenvuelven nuestros hijos/as, con habilidades sociales adquiridas, se producen interacciones y choques, en los que estamos presentes las madres-padres, el conjunto de agentes del centro escolar y otros iguales y adultos en el medio abierto comunitario. Así pues, lo correcto, funcional y, sin lugar a dudas, plenamente satisfactorio, será ver que nuestros/as hijos/as logran un equilibrio entre los distintos espacios, actividades y la practicidad de su coherencia personal.

Igualmente el centro escolar es el espacio de referencia para todas/os, donde también las madres-padres y personal del centro deben encontrarse, comunicarse e interactuar con plena autonomía. Y la estructura de funcionamiento que se configura con esa dinámica, activa un espacio abierto, democrático y participativo. Espacio integrador este, que garantiza el contacto y relación humana, el reparto de tareas y designa derechos y deberes en su conjunto; y es aquí donde las competencias y responsabilidades deben ser respetas y compartidas.

Finalmente, todo esto supondrá una inversión-acción que promueva acercamiento, comunicación e implicación, para posibilitar una labor compartida y por tanto bidireccional de compromisos y deberes. En cuya tarea (*garantizada con prácticas educativas saludables por parte de todos/as*) apostaremos por un proceso socioeducativo de aprendizaje y aportación mutua, para seguir construyendo desde nuestros principios cooperativistas un proyecto educativo y comunitario ejemplar para nuestras próximas generaciones. **ESTA SERÁ LA MEJOR ACCIÓN PREVENTIVA Y CONSTRUCTIVA QUE HAGAMOS.**

**Todos/as somos necesarios/as, ya que,
la Ikastola la representamos todos en su conjunto**

**Elena & Antton
Ikastolako gurasoak**



Antzinako sendagaiak ikasten



Denetik ikasi behar dugula esaten digute behin eta berriro etxean, ikastolan... eta hilabete honetan Lesmes Gorrotxategi eta Portugal baserriko Erramonaren ukenduak egiten ikasi dugu. Denok adi – adi eta gustura egon ginen. Orain zuek ere ikastea nahi dugunez nola egiten diren adieraziko dizuegu.

LESMESS UKENDUA: Gurutzeko Alamendegi baserrian sortu zuen Lesmes Gorrotxategiren amak duela 88 urte. Lesmes Gorrotxategi Oreretako Gamongo baserrian bizi izan da urte askoan eta han izan zituen bere seme – alabak.



Osagaiak: Intsusa, berbena belarra, ardi mingaina – plantina, zaingorria, pasmo belarra, argizaria eta oliba olio.

Zertarako? Fistula, odoluzkiak (almorranak), granoak, intsektu ziztadak eta zakur koskak sendatzeko. Baita infekzio, larruazaleko gaitzak eta hezur hautsiak osatzen laguntzeko ere.

INTSUSA UKENDUA

Osagaiak: intsusa makila metro bateko adar gazte bat

- pasmo belarra sorta bat
- oliba olio litro erdi bat
- argizaria 200g.

Nola egin? Urte bereko intsusa makilen barruko mintze edo axal berdea, pasmo belarra, oliba olio eta argizari naturala berotzen eduki 20 minutuz. Utzi egun oso bat ontzi bertan nahi bada eta iragazi. Ukendua kristalezko ontzian gorde.

Zertarako? Erredurak sendatzeko ukendua dugu.

Anima zaitetzte eta egin. Kontatuko dizkiguzue ze nolako onurak izan dituzuen erabili ondoren.

LH 4. mailako ikasleak



YO SIEMPRE SERÉ UNA PIJA

Tacones altos, la minifalda
siempre la llevo conjuntada con mi tanga.
Pelo pintado de rojo claro
con una cinta que me brilla como un faro.
Sujetadores con las tiras transparentes.
Y aunque me digan que me vista más normal...

**Yo siempre seré una pija,
Seré una pija, seré una pija (bis)**

El pasear me da mucho temor
porque toda la gente me mira a mí con rencor.
Me miran y comparan sin amor
pero a mí no me importa porque soy mucho mejor.

Y venga gesticular
con mi mano al hablar:
O sea tío ¡venga! ¡A bailar!
Que a veces el moverse, o sea, sabes
tío el moverse, tío el moverse, tío el moverse, tío el moverse es disfrutar.

El maquillaje muy elegante
por eso yo me echo mucho colorante.
Y si algún chico se me pone por delante
le doy la espalda
Y él me mira por la raja de la falda.
¡Que Dios nos valga!
Y aunque me digan que me vista más normal...

**Yo siempre seré una pija,
Seré una pija, seré una pija (bis)**

El pasear me da mucho temor
porque toda la gente me mira a mí con rencor.
Me miran y comparan sin amor
pero a mí no me importa porque soy mucho mejor.

Y venga gesticular
con mi mano al hablar:
O sea tío ¡venga! ¡A bailar!
Que a veces el moverse, o sea, sabes
tío el moverse, tío el moverse, tío el moverse, tío el moverse es disfrutar.

Y venga gesticular
con mi mano al hablar:
O sea tío ¡venga! ¡A bailar!
Que a veces el moverse, o sea, sabes
tío el moverse, tío el moverse, tío el moverse, tío el moverse es disfrutar.

(Música de "Antes muerta que sencilla"
de María Isabel)



23. Lexoti saria

BERTSO JARRIAK HIRU IRABAZLEAK

Gaia:

Lehen aldiz maitemindu naiz

Egilea: Haritz Azkarate

I

Orain arte ni ibiltzen nintzen
neskaz neska lorez lore
neska batekin muxukatu ta
bost minututara alde.
Azken aldian nire buruan
zu zeu bakarrikan zaude
bihotza neri ostu didazu
baina minik eman gabe.

II

Zure ilea hori-horia
dirudi urrezko izara.
Orain arte nik ikusi dudana
neska politena zara.
Zu polita ta ni itsusia
gu horrelakoak gara.
Zu ikusteagatikan noa
gustura ikastolaka.

III

Zu han jatorra, hain alaia ta
zu zara maitagarria
nere ametsen protagonista
inspirazio iturria.
Zuganako nik daukadana da
kezkatzekoa larria
zurekin asetuko dut beti
nik maitasun egarria.

Gaia:

Orain arte ez nekien, baina uste
dut badakidala maitemintzea zer.

Egilea: June Retegi

I

Maitemindu naizen guztietan
bihotza egin zait uzkuritu,
nire barnea suntsitu eta
neure arima lapurtu.
Bestetan egin izan didate
sentimendua apurtu,
mutilak maitatzeko gogoa
oraindik ez zait agortu

II

Gainera orain piztu zait niri
mutil batengan argia,
txoritxo bat bezala aurkitu dut
goxo egoteko kabia.
Nire bizitzan bera agertzea
Jainkoaren miraria
ematen baitio bizitzari
goxotasun ta magia.

III

Une honetan mutila daukat
nire minen ukendua,
lotsaren izara pistusua
berarekin dut kendua
berari agertu baitiot nik
barneko sentimendua
maitasuna zoragarri hau nuen
aspalditxotik galdua.

Gaia:

Gurasoek haurra naizela
uste dute.

Egilea: Odei Mujika

1.- alaba

Lasai egon zaitezte
ni ari naiz hazten
nire burua dakit
ongi kontrolatzen
zergatik ez nauzue
ni pixka bat ahazten
utzi nire mesedez
nahi dudana egiten.

2.- gurasoak

Jarri arreta orain
guri entzuteko
aspalditik daukagu
hau zuri esateko:
Dexente falta zaizu
handia izateko
ttikia zara oraindik
gu gabe ibiltzeko.

3.- alaba

Adinak ez du axola
gazte edota zahar
bakarrik ibiliko
naiz kalean zehar
ez nuke jokatu nahi
nik zuekin zakar,
baina ez naiz ttikia
ez zaituzten behar.





Dbh 4. mailako ikasleei emakumeen inguruan idatzi bat egin behar zutela esan zitzaien eta beraien iritzia eman. Hau da adibide bat

“The advantages and disadvantages of being a woman”

What could men do without a woman in their life? Could men live without a wife? These are questions that many men think about and they show the importance of women because it is obvious that men's life is very different if they are married, just live with a girl or if they are single and live alone. But women's life is very hard and here we are going to see what women's real value is.

First of all, I can say that it is much more difficult to find a job for women than for men. One of the main reasons is the pregnancy. All the owners have this aspect in their minds and they prefer to take on a man, because if a woman gets pregnant, she continues getting money without working and this is not convenient for the owner. Pregnancy is not a disadvantage only in this aspect; while the woman is pregnant, she suffers a lot. If this is not enough, they have to do all the housework: ironing, washing, cleaning, tidying...and men do not care about this. But it is not only housework, children are also brought up by their mothers while their fathers only stay with them to play or to go somewhere. And if listening to all these things sounds badly, think about getting all together. Who wants to be a woman in this situation?



However, I would be a woman if I could because living as a woman seems to be very interesting. On the one hand, we could speak about the advantages because the aspects I am going to mention now are more important than the previous ones. First of all I want to say that women have a better relationship with their parents and this is because women speak easily about their feelings, problems, the person they love...with them whereas men hate speaking about it. In addition to this, we could say that friendship is very different too and for me, women win here too. Women speak more to each other while men only talk about football, sports and sex.

However, there can be men who speak about feelings but it is strange to find this kind of friendship between boys. There is another quality about women I love and it is that they are really lovable. Again, we could say that generally men do not have this quality I really admire.

In conclusion, I think that being a woman could be very interesting but not only because of the advantages but also for the disadvantages: They make you be more responsible and learn to respect other people as women feel “excluded” from some aspects of the society too and that is why they try to help other people not to feel like this.

Imanol Arbelaitz DBH-4A



laburpen tentazaila

TXIRRITA

ARGITALETXEA: SENDOA

IDAZLEA: Pello Esnal

TXIRRITA JAIO
ZENEAN EGIN
ZVEN LEHEN
GAYZA ZOPA
GOILARAKADA
BAT JATEAIZAN
ZEN. EZ ZEKIEN
IDAZTEN EUT
BAKARRIK
MAMAZ
EGINDAKO
HIZKIAK
IRAKYRRIE
ZITVEN



GENIAGO JAKIN NAHI BADAZY IRAKYRRI!



gizarte ekintza



"la Caixa"

**"Oiertzuarren
zerbitzura gaude"**

Mendiburu kalea 2 • ☎ 943 49 47 19



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**



LÍDER EN EL
TRANSPORTE INTERNACIONAL

LIDERRA
NAZIOARTEKO GARRAIOAN

Araña buru, I - Pol. Lanbarren - 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 13 75 • Fax 943 49 34 62



**BIKO
ETXEGINTZA S.L.**

Karaitza etxea • Garmendi bidea 3 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 49 25 01 • Fax 943 49 25 01

ARABOLAZA Eraikuntzak S.L.

Berriztatze lanak

Borrokakazelaieta bidea 18, (Gurutze) • 20180 OIARTZUN
☎ 943 491 365 • Postakutxa 16 • Fax 943 493 772



Industrias Tajo, S. Coop.



NIESSEN

ABB Niessen, S.A.

Polígono de Aranguren s/n • 20180 OIARTZUN
☎ 943 260 101 • Fax 943 260 250



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



AMENABAR

AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



Ederki, s.l.

Ihurrita Bidea 13 - 6. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ 943 49 16 41



OIARTZUN LANTEGIAK, S.L.

Konponketak, Erakusketa, Salmetak eta Karrozeria

Ihurrita Bidea 13 - 1. lokala • 20180 OIARTZUN • ☎ eta faxa: 943 49 18 48 - 943 49 41 36



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 • 20180 OIARTZUN
☎ 943 26 04 26 - 943 26 03 91

Carrefour



OIARTZUN

MERKATARITZA ZENTRUA